



Yoko Ono, *Hichiko Hoppo*, 2014. Zabaldutako inprimaziodun bederatz mihise eta sumi tinta, 2 x 1 m bakoitza; 2 x 11 m guztira. Guggenheim Bilbao Museoa, artistaren dohaintza

Yoko Ono, *Hichiko Hoppo*, 2014. Nueve lienzos tensados y con imprimación, y tinta sumi, 2 x 1 m cada uno; 2 x 11 m en total. Guggenheim Bilbao Museoa, donación de la artista

Yoko Ono. *Half-A-Wind Show. Atzera begirakoa* erakusketa itxi ondoren —ikusgai izan zen Museoa 2014ko martxotik irailera— Yoko Ono artistak (Tokio, 1933) bi lan eman zizkion dohaintzan Guggenheim Bilbao Bildumari: *Bilborako nahien zuhaitza* (*Wish Tree for Bilbao*, 1996/2014; ikus urtekariaren azala) eta *Hichiko Hoppo* (2014).

*Bilborako nahien zuhaitza* lanean ikusleak esku har dezake. Onok 1996an hasi zuen lan-sorta batekoa da, eta harrezkero lanaren hainbat bertsio egin ditu, munduko hainbat museoetan —Veneziako Peggy Guggenheim Collection, Tokioko Arte Moderno Museoa eta Washingtongo Hirshhorn Museum and Sculpture Garden— eta zenbait gune publikotan erakusgai daudenak. Lan-sorta horrek Japoniako ohitura historiko eta erlijioso bat du jatorri: otoitzak eskegitzen dituzte zuhaitz, zuhaizka zein banbu landaretan. Antzeko lan bat egin zuen beste museoetan bezala, Bilbon ere bisitariari proposatu die “bakea”ren aldeko mezu bat idazteko zein xuxurlatzeko. Guggenheim Bilbao Museoko instalazioan nahiak xuxurlatzeko aukera eta zuhaitzetik eskegi ahalko diren txarteletan nahiak idazteko aukerak txandakatuko dira.

Tras la clausura de la muestra *Yoko Ono. Half-A-Wind Show. Retrospectiva*, que el Museo acogió de marzo a septiembre de 2014, la artista Yoko Ono (Tokio, 1933) donó generosamente dos de sus obras a la Colección del Museo Guggenheim Bilbao, *Árbol de los deseos para Bilbao* (*Wish Tree for Bilbao*, 1996/2014; véase cubierta de este Anuario) e *Hichiko Hoppo* (2014).

*Árbol de los deseos para Bilbao* es una pieza participativa perteneciente a una serie que Yoko Ono inicia en 1996. Desde esta fecha, la artista ha creado distintas versiones de la obra, que ahora están presentes en diversos museos del mundo, como la Colección Peggy Guggenheim (en Venecia), el Museo de Arte Contemporáneo de Tokio o el Museo Hirshhorn (en Washington D.C.), y también cuentan con otros emplazamientos en espacios públicos. Esta serie tiene su origen en una tradición japonesa de carácter histórico y religioso que consiste en colgar oraciones en un arbusto, un árbol o una planta de bambú. Al igual que en los demás museos para los que ha realizado una pieza semejante, en *Árbol de los deseos para Bilbao* la artista invita a los visitantes a escribir o susurrar un deseo de “paz”. En la instalación del Museo Guggenheim Bilbao se alternarán períodos en los que el público podrá susurrar deseos al olivo y otros, señalados, en los que se podrán escribir los deseos en tarjetas que se colgarán del árbol.

Guggenheim Bilbao Bilduman sartutako Onoren bigarren lana *Hichiko Hoppo* (2014) da; lan horrek *Ekintza pintura* (*Action Painting*) performance du jatorri, artistak Museoko Entzungen 2014ko martxoaren 12an egindakoa. Performance horretan *Hichiko Hoppo* sortu zuen, bederatz mihisez osatutako lana. Guggenheim Bilbao Museoa Onoren antzeko lanak dituzten erakunde gutxiak bat izatera igaro zen horrela: Frankfurtoko Städel Museum, Danimarkako Louisiana Museum of Modern Art eta Austriako Kunsthalle Krems dira besteak.

Mihiseek Japoniako heroi bat aipatzen dute. Artistak haren inguruko elezaharra, sufrimenduaren balioa goraiatzeko zuena, entzuten zuen txikitan; bizitzan, bereziki Bigarren Mundu Gerran, elezaharrak kontatzen zuenaren antzeko gauzak bizi izan zituen. 2011n ipuinak esaten zuenari buelta emateko, “zazpi zorion eta zortzi altxor” helaraztea erabaki zuen performance-sorta baten bidez. *Hichiko Hoppo* lanean azpimarratzekoa da kaligrafiaren, pinturaren —arte abstraktuarekin lotura— eta performancearen arteko elkarbidea. Era berean, lengoia ere agertzen da; Onoren ibilbidean ohikoa izan da hizkuntza erabiltzea, *Jarraibideetan* egin zuen moduan.

La segunda obra de Ono que se incorporó en 2014 a la Colección del Museo Guggenheim Bilbao es *Hichiko Hoppo* (2014) y tiene su origen en la performance *Pintura de acción* (*Action Painting*), acción pictórica ejecutada por la artista el 12 de marzo de 2014 en el Auditorio del Museo ante el público, durante la cual creó *Hichiko Hoppo*, una obra única constituida por nueve lienzos. El Museo Guggenheim Bilbao se une así al selecto grupo de museos que poseen piezas similares en su colección: el Museo Städel de Frankfurt, el Museo de Arte Louisiana (en Copenhague) y la Kunsthalle Krems (en Austria).

Los lienzos hacen referencia a la leyenda de un héroe japonés, una historia que la artista escuchaba en su infancia y en la que se exaltaba el valor del sufrimiento. A lo largo de su vida, y especialmente durante la Segunda Guerra Mundial, Ono experimentó en cierto modo lo que se narraba en esta leyenda. En 2011, decide iniciar esta serie de performances, en la que invierte la narrativa original, para hablarnos de “siete fortunas y ocho tesoros”. Es relevante la interrelación que se produce en esta obra entre los aspectos caligráficos, los aspectos pictóricos —que nos conectan con la historia del arte abstracto— y los aspectos performativos. Al mismo tiempo, el elemento lingüístico que contiene nos remite al uso continuado del lenguaje en la trayectoria creativa de Ono, que la artista plasmó anteriormente en sus *Instrucciones*.